

Hasiera > Paperekoak



**GOIERRI**

- Altzaga
- Arama
- Ataun
- Beasain
- Ezkio-Itsaso
- Gabiria
- Gaintza
- Idiazabal
- Itsasondo
- Lazkao
- Legazpi
- Legorreta
- Mutiloa
- Olaberría
- Ordizia
- Ormaiztegi
- Segura
- Urretxu
- Zaldibia
- Zegama
- Zerain
- Zumarraga

**MAITE MENDIZABAL D- TXUKUN ZENTROKOA**

## «Harrigarria da txakurren eta ezinduen arteko harremana»

Gizartea

Mendilur elkarteak ezindu fisiko eta psikikoekin terapiak egiten ditu txakurren bidez; bihar, dirua biltzeko festa egingo dute Altsasun.



ARKAITZ APALATEGI

Animalien bidez ezindu fisikoekin eta psikikoekin terapiak egiten ditu Sakanako Mendilur elkarteak. Terapiak neguan ere egiteko estalpea eraiki nahi dute, eta dirua lortzeko II. Mendilur Jaia egingo dute bihar Altsasun. Lazkaoko Txukun zentroa ere Mendilur elkarteke kide da, eta Maite Mendizabalek ezagutu ditu terapiak.

### Zer da Mendilur elkarteak?

Irabazi asmorik gabeko elkarteak da, eta bere helburua animaliekin egindako lanen bitartez, batez ere txakurrekin, ongizate fisikoa, psikikoa eta soziala bultzatzea da.

### Ongizatearen barruan, ezgaitu fisiko eta psikikoekin terapiak ere egiten dituzte, ezta?

Bai. Nik Arabako herri batean ikusi nituen lanean. Mutil autista bat txakurrekin ikusi, eta berez dituzten arazo guztiak kontuan hartuta, edozein gazte bezala aritu zen jolasean. Harrigarria da horrelako arazoak dituen jendearen eta txakurren artean sortzen den harremana.

### Harreman berezia sortzen da, beraz?

Berak bereziki hezi ditu txakur batzuk ezintasunak dituzten ume eta helduekin ibiltzeko. Batez ere autistak, zenbait unetan edo urduri daudenean oso oldarkor jar daitezke, ingurukoie ere min emateko adina. Horietako une batean txakurra askatu eta harrigarria izan zen, hain urduri egotetik nola kolpean lasaitu eta txakurra laztantzen hasi zen. Pertsonarekiko daukaten agresibitate hori animaliekin kontrolatu egiten dute. Euren sentimenduak horrela agertzen dituzte.

### Nola sortu zen elkarteak?

Alejandro Ibarra txakur hezitzailea izan da elkarteak sortzeko lan gehien egin duena, baina berarekin batera psikologo batek eta boluntario batzuek osatutako laguntzaile taldea du. Ibarra berez txakur hezitzailea da, baina umeekin eta arlo honetan egin zezakeen lana ikusita, proiektua martxan jartzea erabaki zuen.

Zure nabigatzaileak ez du JavaScript exekutatzeko gaitasunik. JavaScript exekutatzeko gaitasunak ez du JavaScript exekutatzeko gaitasunik.

### Eta nola sortu zen Txukun eta Mendilur elkartearen arteko harremana?

Kasualitatez izan zen. Guk Txukun zentroa jarri genuenean jendearen beharrak ere entzun genituen eta bat bazen garbitzeko toki bat izatea, eta hori soluzio bat izan da jende askorentzat. Baina jende askok txakurrekin arazoak zituela eta ea hezitzailearen bat ezagutzen ote genuen galdezka hasi zitzaigun, baina orduan Goierri aldean ez zegoen horretarako pertsona egokirik. Eta kasualitatez, ez dakit gizon honek gure berri nondik izan zuen, baina gurekin harremanetan jarri zen. Ikastaroetarako ados jarri ginen eta prezio onean eskaini zizkigun, eta horrela hasi zen gure harremana. Oraindik ere urtero hiru-bat ikastaro egiten ditugu berekin.

### Altsasun dirua biltzeko festa egingo dute. Zein da helburua?

Jaialdi honen helburua ikastaroak eta terapia horiek egiteko aterpea eraikitzea da. Lakuntzan biltzen dira eta udarako leku aproposa da, irekia baita, baina eguraldi txarra egiten duenean eta batez ere neguan ez dute babesik. Horregatik, estalpe bat egin nahi dute, umeak-eta babestuta sentitzeko.

### Nolako festa izango da?

Altsasuko Kaputxinoen eskolatan izango da festa. Ekitaldirik gehienak animaliekin lotuta daude. Goizean txakur erakusketa eta zaldian ibilaldiak egiteko aukera izango da. Arratsaldean artzain txakurrak eta antzarak edota defentsa eta erasorako txakurren erakustaldia ere izango da. Egunean zehar taberna jarriko dute eta gauean bertso afaria izango da.

### AGENDA

#### IKUSKIZUNA

**Gala Ballet eskolakoek ikasturte amaierako ikuskizuna**

BEASAIN, Usurbe antzokian - 2010-06-20

#### ERAKUSKETA

**Auto klasikoak**

ZUMARRAGA, Euskadi plazan - 2010-06-20

Zure inguruko ekitaldien berri eman

Ekitaldi guztiak ikusi »

### IRUDIETAN

#### BEASAIN



### Realeko jokalaria Beasainen

Gehiago ikusi »

**hitza**  
etxe bat gehiago  
Goizero etxean jasotzeko  
Harpidetu zaitez!

**hitza**

- Behé Bidasoako Hitza
- Busturialdeko Hitza
- Goierriko Hitza
- Irutxuloko Hitza
- Lea-Artibai eta Mutrikuo Hitza
- Oarsoaldeko Hitza
- Tolosaldeko Hitza
- Urola Kostako Hitza

### Bai Euskarari



### Laguntzaileak



Gipuzkoako





KULTURA SAIA  
Ministerio de Cultura  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Ministerio de Política Lingüística

Izena:

e-posta:

Izenburua:

Mezua:



Aurreko kodea kopiatu:

Mezua bidali

### Parte hartzeko arauak

1. - Saiatu zure artikulua izen-abizenekin sinatzen. Indar handiagoa du.
2. - Iritzia anonimoki eman nahi baduzu, baduzu horretarako aukera ere. Kontuan hartu ondokoak:
  - \* Ez pertsonala. Pertsona bati buruz ari garenean zehazki, kritikatzeko edo famatzeko, anonimoki ez dute balio. Eta, kasu honetan, pertsona fisikoez ari gara, ez entitate juridikoez.
  - \* Entitate juridikoez anonimoki aritu daiteke, baina pertsonalizatu gabe, eta talante eta errespetu onean; iraindu gabe, doako akusaziorik egin gabe... errespetuan.
  - \* Aurreko gauza bera gai orokorrean idatzi behar denean ere.
  - \* Norbaitek pertsonalki sinatutako iritzi bati, pertsonalki erantzutea dagokio, eta ez anonimoki.
3. - Dena arautzea ezinezkoa da, batez ere hau bezalako webgunen batean. Mesedez, denon zentzu ona eta kolaborazioa eskatzen ditugu. Apenas izango den logika bezalako arautzaile zuzenik kasu hauetan.

[Hasiera](#) | [Albisteak](#) | [Blogak](#) | [Bideoak](#) | [Eztabaidak](#) | [Inkestak](#) | [Zurea da Hitz](#) | [Paperekoak](#) | [Agenda](#) | [Zerbitzuak](#) | [Irudietan](#) | [Merkatu Txikia](#) | [Agurrak](#) | [Txokoa](#) | [Begiradak](#) | [Hemeroteka](#)

© **Goierriko Hedabideak S.L.** - Urbialde Plaza 7, behea - BEASAIN - Tel.: 943 16 00 56  
Faxa: 943 88 96 12 - E-posta: [goierri@goierrikohitza.info](mailto:goierri@goierrikohitza.info)



Internet Ehuntzen S.L.-k garatua

Goierriko Hedabideak S.L.ko kideak: **Zintzo Mintzo, Goierritarra**  
**Bertako Hedabideak (EKT)**  
eta **Goierriko Berriak Kultur Elkarte**: 15 gizarte eragile.  
[Lege Informazioa](#)